

OHIKO UDALBATZARRA

Errezilgo Udaletxeko Pleno Aretoan, 2011ko apirilaren zazpiko gaueko bederatzia eta hamar minutu direnean, bildu dira, ohiko Udalbatzarra egiteko ondoko Korporatiboak:

Iñaki Oiartzabal Zinkunegi-Alkate Lehendakaria

Joseba Iñaki Labaka Beristain-Zinegotzia.

Luis Berrondo Lanceta-Zinegotzia.

Jose Luis Albisua Lasa, Zinegotzia.

Luis Arzallus Amenabar, Zinegotzia.

Bittor Astigarraga Zugasti, Zinegotzia.

Josune Arruti Eizagirre Zinegotzia, ez da etorri.

Idazkari lanetan, Maria Etxeberria Urretabizkaia Udaletxeko Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea.

Alkateak hasera eman dio bilkura honi ondoko gai zerrendaren arabera:

LEHENENGO PUNTUA:

2011KO MARTXOAREN 3KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Alkateak 2.011ko martxoaren 3ko aktaren berri ematen du eta zinegotziek aho batez onartzen dute.

BIGARREN PUNTUA:

2010 URTEKO LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.

Alkateak 2010eko likidazioaren berri ematen du, 25/2011 Dekretua literalki jakineraziaz:

“Udal honen 2010(e)ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehen.- Udal honen 2010(e)ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

31n:		
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2010-12-31n:		124.137,70
Aurrekontuko zordunak :	118.139,25	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	5.998,45	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2010-12-31n:		121.490,10
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	96.583,72	
Sarreren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	24.906,38	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):		6.651,96
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):		6.651,96
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):		6.651,96
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		14.948,05
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:		-5.403,61
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:		0,00
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:		0,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):		9.544,44
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:		241.505,75
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:		41.434,74
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):		282.940,49

Bigarrenena. Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrenena. Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran”

Zinegotzi guztiak jakinaren gainean geratu dira.

**HIRUGARREN PUNTUA:
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ESKURATZE ZENTRALIZATUKO
SISTEMARI- FORU KONTRATAZIOEN ZENTRALARI ATXIKITZEKO
HITZARMEN EREDUAREN ONARPENA.**

Udalbatzak, aho batez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuratze zentralizatuko sistemari – Foru Kontratazioen zentralari atxikitze hitzarmen eredia onartu du eta aldi berean, Alkateari Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmen hau sinatzeko baimena ematea onartu da.

**LAUGARREN PUNTUA:
2010 EKITALDIAN KULTUR ETA KIROL JARDUERAK EGITEKO
DIRULAGUNTZEN KITAPENAREN ONARPENA.**

Ikusirik 2010eko uztailaren 8an egindako Udalbatzan 2010 ekitaldian ondoren aipatzen diren kultura eta kirola iharduerak emateko dirulaguntza onartu zela.

- 1.- Gazte taldea (idi demak) : 1.000 €
- 2.- Atala (kultur ekintzak): 1.000 €
- 3.- Erniarraitz (betsolaritza): 645,13 €
- 4.- Toki Alai (ikastaroak): 1.000 €

Ikusirik 2010eko abenduaren 16ko Udalbatzan, Erniozaleak elkarteari 465 €-tako dirulaguntza onartu zitzaioela.

Ikusirik 2010eko uztailaren 9 eta abenduaren 23ko datekin, aipaturiko dirulaguntzen % 60-a ordaindu zitzaioela.

Ikusirik subentzioa ematen deneko baldintzetako bat, %40-a ordaintzeko egindako gastua justifikatzearena dela.

Ikusirik justifikazio hau eskatzaile guztiek egin dutela.

Udalbatzak, aho batez, eta Batzordearen proposamena kontuan izan ondoren, gainontzeko %40-a ordaintzea erabaki du, hau da:

- 1.- Gazte taldea (idi demak) : 400 €
- 2.- Atala (kultur ekintzak): 400 €

- 3.- Erniarraitz (betsolaritza): 258,06 €
- 4.- Toki Alai (ikastaroak): 400 €
- 5.- Erniozaleak: 186 €

PROPOSAMENA

BAKARRA: 2010 urteko kultur dirulaguntzen kitapena onartuta eta likidatuta geratzen da.

BOSTGARREN PUNTUA: 2011 EKITALDIAN KULTUR ETA KIROL JARDUERAK EGITEKO DIRULAGUNTZEN ONARPENA.

Ikusirik 2011 ekitaldian kultur eta kirol iharduerak egiteko dirulaguntzak eskatzeko epea martxoaren 15ean amaitzen zela.

Ikusirik epe honetan zehar, ondorengo 5 eskatzaile aurkeztu direla beraien proiektuak ondorengoak direlarik:

- 1.- Gazte taldea (idi demak) : 12.000 €
- 2.- Atala (kultur ekintzak): 9.800 €
- 3.- Erniarraitz (betsolaritza): 13.700 €
- 4.- Toki Alai (ikastaroak): 3.445 €
- 5.- Jone Irulegi Amenabar eta beste batzuk: 1.935,00 €

Udalbatzak, aho batez, eta Batzordearen proposamena kontuan izan ondoren, ondorengo dirulaguntzak ematea eta proiektuaren %60-a ordaintzea erabaki du:

- 1.- Gazte taldea (idi demak) : 1.000 €
- 2.- Atala (kultur ekintzak): 1.000 €
- 3.- Erniarraitz (betsolaritza): 400 €
- 4.- Toki Alai (ikastaroak): 1.000 €
- 5.- Jone Irulegi Amenabar eta beste batzuk: 775 €

Beraz, 2011 urterako kultur eta kirol iharduerak onartuta geratzen dira.

SEIGARREN PUNTUA:
UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEKO ESTATUTUEN ALDAKETAREN
ONARPENA.

Alkateak Urola Erdiko Mankomunitateko Estatutuen aldaketaren berri ematen du. Ondoren, Idazkariak jakinerazten du, apirilaren 2ko 7/1985 legeko 47.2)g artikuloak literalki dioenaren arabera, Estatutuen aldaketa Udal bakoitzak, organu hori osatzen duten kideen gehiengo osoz onartu behar duela eta honen inguruko txostena egin duela.

Luis Arzallusek dio, hemen Udalak ahalmena galtzen duela eta beraz, beraiek abstenitu egingo direla.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Bittor Astigarraga Zugasti eta Luis Berrondo Lanceta.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: Luis Arzallus Amenabar eta Jose Luis Albisua Lasa.

Beraz, Urola Erdiko Mankomunitateko Estatutuen aldaketa onartuta geratzen da.

ZAZPIGARREN PUNTUA:
DESFIBRILADORE BAT AKURATZEKO KONTRATUAREN AZTERKETA.

Alkateak gai honen inguruan Udaletxera iritsitako informazioaren laburpen bat egiten du.

Luis Arzallusek galdetzen du ea aparatu hau nola alokatzen den.

Iñakik erantzuten dio, aparatu hau puskatzen bada, ez dela Udalaren ardura.

Jose Luis Albisuak dio, aparatu hau ona dela, baina Errezilgo herriarentzat ez duela egokia ikusten, hau da, herri diseminatuta dala...

Luis Arzallusek dio, Saiaz mankomunitatea honen kargu egin beharko litzatekeela.

Iñaki Labakak dio, aparatu hau jartzeko kokalekua bilatu behako genukeela.

Alkatea Mankomunitatean proposatzekotan geratu da, ea mankomunitate mailan eskaera egin eta merkeagoa ateratzen den.

Gai honen inguruan hitzegin ondoren, oraingoz mahai gainean geratzen da.

**ZORTZIGARREN PUNTUA:
UDALEAN AUDITORIA PASATZEKO ESKAERAREN AZTERKETA.**

Alkateak dio, beraien taldeak ez duela beharrezkoa ikusten Udalean auditoria pasatzea eta Herri Kontuen Epaitegiak Udaletako kontuak aztertzen dituela.

Jose Luis Albisuak aldiz dio, beraien taldeak beharrezkoa ikusten duela auditoria egitea, sartzan den taldeak Udaletxea zein egoeratan hartzen duen ikusteko.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, auditoria pasatzeko eskaera ez da onartu ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Luis Arzallus Amenabar eta Jose Luis Albisua Lasa.
2. Aurkako botoak: Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Bittor Astigarraga Zugasti eta Luis Berrondo Lanceta.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, Udalean auditoria pasatzeko eskaera ez da onartu.

**BEDERATZIGARREN PUNTUA:
ORDAINAGIRIEN ONARPENA.**

Ez dago ordainagiririk.

**HAMARGARREN PUNTUA:
ALKATETZA BERRIAK ETA EBAZPENAK.**

Alkateak azkeneko Plenotik gaurko data arte emandako Dekretuen zerrenda jakinarazten du, hau da, 2011ko martxoaren 3tik (25/2011 Alkatetza Ebazpena) apirilaren 4ra (41/2011 Alkatetza Ebazpena) bitarteko Dekretuak.

**HAMAIKAGARREN PUNTUA:
GALDERAK ETA ERREGUAK.**

Alkateak ondorengo 2 puntuak aipatzen ditu:

1.- Hauteskundeetako mahaikideak aukeratzeko Udalbatza, apirilaren 26an egingo dugu.

2.- Udalak erosi behar dituen eszenario, mahaien..... inguruan, aurrekontuak eskatu eta aztertzen ari gara.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko hamarrak eta hamabost minutu direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut.